

hortik kendu behar da. Gero, Abandoibarrako urigintza lan handia deitzen deusaguna dator, hau da, Abandoibarrako eta Leizaola Lehendaria etorbideak egitea. Laster aterako doguz lehiaketara, eta irailean hasiko dira obrak. Horrek ekarriko dau Parkeko errepidea balio barik iztea, eta Abandoibarra barruan komunikazio bideak eregitzen hastea: hoteleraino, merkataritza eta aisialdi guneraino, Diputazioaren dorreraino...

■ Zelan dago Diputazioaren bulego guztiak Abandoibarrara eramateko prozesua?

Aldundiak emon ditu lehenengo pausoak. Cesar Pelli arkitektoari eraikinaren diseinua egiteko eskatu deutso. Kontua da, oso obra gaxa dala. Aldundiak hainbat ikerketa egin behar izan ditu jakiteko zelan funtzionau ahal dauen zerbitzu guzti-guztiak erikin bakarrean sartuta. Nik gura dodana da Renfek merkantzien biltegia ateraten daunerako Diputazioak bere eraikinaren proiektua gertu eukitea, eta Renfek urten eta hurrengo egunean obrak hastea. Horixe izango litzateke onena, baina operazio gax-gaxa dala be onartzen dot.

■ Ze onura ekarriko deusoz Abandoibarrak Bilbori?

Abandoibarra Bilboko Manhattan izango dala entzun izan dogu. Gurako neuke holan izango balitz, munduko erabagirik garrantzitsuenak Bilbon eta Abandoibarran hartzea. Atzera begiratzen badogu, Guggenheim museoa daukagu. Proiektuak txarto urten izan baleu ezingo genduan erakina behera bota. Baina ondo urten dau, eta jente asko eta asko etorten da Bilbora Guggenheim bisitetan. Eta horrek ez deusoz onurak museoa- ren ondoan dagozan negozioei bakarrik ekarri. Bizkaia osoari eta Euskal Herriari ekarri deusoz onurak Guggenheimek.

Abandoibarra erabagien motor bihurtzea, eta, ganera, bertan dagozan eraikinengaitik erakargarria izatea gura dot. Guggenheimek daukan garrantzia indartu leike Abandoibarrak, eta horrek ekonomia eta industria barriak erakarri ahal ditu.

■ Abandoibarrako proiektuak polemika sortu dau, batez be Diputazioaren dorreak eta egingo diran etxebizitzak prezioak.

Prezioak ez doguz geuk ipinten, merkauek ezarten ditu. Etxebizitzak garestiak izatearen arazoa ez da Abandoibarrakoa, leku guzti-guztietakoa da. Esaten da Abandoibarran metro koa- dro bakotxa milioi bat pezeta kostetan dala. Baina prezio hori



TRANBIAREN ARAZOA

«Tranbiaren obrak aurrera egiteko, Renfek kendu egin behar dau merkantzien biltegia Abandoibarratik. Hori 2002an izango da»

GELTOKI INTERMODALA

«Geltoki Intermodalaren ardurea Bilbao Ria 2000k hartuko dauela uste dot; proiektua aurrera aterateko erakunde egokiena da»

Bilboko eta inguruetako beste leku batzuetan be badago. Etxebizitzak merkauek garestia bada, Abandoibarran oraindino eta karuagoa izango da, dagoan lekuagaitik.

Beste kontu bat da zer egiten dan diru horregaz. Administrazioak ezin dauena da prezio baxuak ipini, gero atzetik datorrenak horregaz negozioa egin daian. Erakundeek ahalegindu behar dabe plusbalio hori euren eskuetan mantentzen.

■ Eta, non inbertidu behar dira irabazi horreek?

Lehenengo eta behin, Bilbo orekatuagoa lortzeko ahalegina egin behar dogu. Ezin da izan maila ezberdinetako lekuak egotea, oreka egon behar da. Abandoibarran ez bada dirua ateraten, ez dago dirurik Bilbo Zaharrendako. Beste gauza bat izango zan irabaziak Diputazioaren bulegoak Abandoibarrara eramateko erabiliko balitzaz, baina hori ez da holan.

■ Geltoki Intermodalaren gaia geldi dago aspaldian. Bilbao Ria 2000k zenbaterainoko indarra egin ahal dau gai horretan?

Modu ofizialean ez da geure ardurea, baina nagoan lekutik

esan neike oso proiektu interesgarria izan leikela Bilbao Ria 2000rendako. Nire ustez, foro egokia izan leike proiektua aurrera aterateko, bertan erabagiak hartu behar dituen hainbat erakunde dagozalako. Ganera, Bilbao Ria 2000k badauka esperientzia antzerako gaietan. Nire ustean, azkenean Bilbao Ria 2000k izango dau Geltoki Intermodalaren ardurea. Eta ez hori bakarrik.

■ Bilbao Ria 2000ek Intermodalaren ardurea hartu ezkerro, lehentasuna izango leuken gaia izango litzateke.

Zalantza barik. Izango dauen eraginagaitik proiektu oso garrantzitsua da. Lehenengo eta behin, zer gura dan jakin behar dogu, hau da, geltoki intermodala edo garraioak truketako geltokia. Hori guztiori interesauekin berba eginda lotu behar da, Feve eta Renfegaz batez be. Ganera, abiadura handia laster ailegauko da Bilbora, eta hori nonbaiten sartu beharko da. Ze ozer egin behar da, igoal giroa lasaitzen danean, hauteskunde- en ostean. Noizko egon daitekean Geltoki Intermodala? Igoal 15-20 urte beharko dira, prozesu gaxa dalako.

LABURAEAN

AZPIEGITURAK

Gaur hasi, eta datorren eguenera arte, mantenimendu obrak egingo ditue Malmasineko tuneletan

Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailak obrak egingo ditu, gaurtik aurrera, Malmasineko tuneletan. Norantza bietan izango dira mantenimendu obrak, eta datorren eguenera arte iraungo dabe. Ahalik eta kalte gutxien eragin guran, gauez egingo ditue beharrok, gaueko 22:30tik goizaldeko 06:00ak bitartean. Maiatzaren 7an eta 8an, Bilbo-Donostia norantzan ibiliko dira beharreen, eta hurrengo egun bietan, oster, kontrako norantzan, Donostia-Bilbon. Ertzaintzak Malmasineko tuneletan kontuz gidatzeko eskatu dau.

BILBO

Zabalburuko lurpeko parkinaren ganean galdetu dau EBK

Zabalburu plazarako eta Juan de Garai kalerako dagoan proiektuaren ganean galdetu dau barriro Julia Madrazo EBKko zinegotziak Udalean. Harek dinoanez, eremu horretarako badago proiektua idatzita, eta hor ez da agertzen lurpeko parkinik. Orain, oster, gai hori mahai ganera ekarri da. Madrazok zehaztu daue- nez, «horrek guztiorrek dakar Zabalbururako dagoan proiektua atzeratzea».

SANTURTZI

Luxuzko ontziak aterateagaitik konpentsazioak eskatu ditu Cruzek

Getxora eroango ditue azkenean Santurtzin egin behar zan Luxuzko ontzien portua. Horren trukean konpentsazioak eskatu ditu Javier Cruz Santurtziko alkateak. Portua kostau behar zan diru berbera Santurtzin inbertitzea exijitu deutso Cruzek Portu Agintaritzari eta Eusko Jaurlaritzari. Ganera, portua Getxora erotea ez dala bidezkoa azpimarratu dau.

IBILALDIA

Tiberio IX.a txarriaren okelea Abusun egingo dan ibilaldian banatuko dabe, maiatzaren 27an

Joan dan urtarrilaren 17an egin eban Txarriduna alkarteak Tiberio IX.a txarriaren zozketea. Lau hilabete igaro diranean, oraindino ez da irabazlea agertu. Hori ikusita, txarria aurtengo Ibilaldiari emotea erabagi dau Txarridunak. Gero, txarriaren okelea maiatzaren 27an Bilboko Abusu auzoan ospatuko dan Bizkaiko ikastolen aldeko jaietan dastatu ahal izango da. Datorren eguaztenean, Txarriduna alkarteak Abusu ikastolara joango dira, Tiberio IX. entregetara. Horren ostean, Zorrotzak hiltzera eroango dabe.



JOSU ETXEBARRIOSTE

Tiberio IX. ikusmin handia eragin eban Santo Tomas egunean.